

Funtsezko Jarduerak

Gure funtsezko jarduera ekoizpena izango da, manufaktura enpresa delako. Diseinu pertsonalizatuz, errealitate birtualeko betaurrekoak sortuko ditugu. Lehen esandako moduan gure produktua jatorri honetakoa denez, hasieran prezio pixka bat altua izango duela esan genezake.

Beste jarduera garrantzitsua izango da webgunearen kudeaketa. Webgunea enpresa guztia mantentzen duen jarduera delako. Horregatik hau mantentzea eta sustatzea oso garrantzitsua izango da gure salmentak egiteko.

Bezeroek gure produktuarekin zerikusia duen arazoren bat izanez gero, haien laguntzara jo ahal izango dugu.

Produktuak banatzeko, lehen azaldutako moduan Amazonekin egindako akordio baten bitartez izango da.

Publizitateari dagokionez, Espainia mailan famatuak diren telebista kateekin akordio bat sinatu dugu gure produktua hedatu edo zabaldu nahian.